

Ez gara leloak

Antton Izagirre

Hauteskunde batzuk egin eta hurrengo atarian gauden honetan, esanguratsuak gertatzen zaizkigu dinamika horren jirabiran sumatzen ditugun zenbait ikuspegi, perspektiba eta aje. Hauteskunde aurreko egun eta hilabeteotan jasotzen ditugun mezuen bidez, alderdi eta erakundeek beren baitako ahal, kemen eta gaitasunak erakusteko ahaleginak egingen dituzten bitartean, gero eta maizago uzten dituzte agerian bai dituzten egiturazko ahuleziak bai gai nagusienetan eragiteko dituztenak. Guztiek ere, nekez egin diezaiekete aurre globalizazioaren, kapitalaren, mundu-ekonomiaren eta merkatuaren aginte-taldeek halabeha-

rrerrez ezartzen dizkieten mugei. Inertzia ekonomiko horiei aurre hartu eta herri-tarren interesetara moldatua beharko lukeen politikaz aritu ordez, eztabaida politikoa txikikerietara eta ñabardura inozoetara mugatzera ohitu gaituzte, politikaren degradazioa eta gutxiestea eraginez. Politika hauteskunde lehiara mugatuta, ozta-ozta jakin dezakegu nork izango duen aginte makila, baina beste kontu bat da boterea noren esku dagoen jakitea.

Komunikazioaren esparrua da politikaren ikusmira erabat eraldatu duen beste alderdietako bat. Herritarron parte hartzea eta ekarpenak ahotan hartuta dabil-tzala dioten arren, oinezkook urrun su-

matzen ditugu politikariak; mamia eta estalkia bereizteko zailtasunak ditugu. Kasurik gehienetan hautagaien eskaintza politikoak prentsa bulegoetan egosten dira, zer den programa eta zer propaganda bereizterik ez dago. Komunikazioaren aroan gaudela ukaezina da. Edukiaren eta formaren artean estalkiak erakartzen omen gaitu. Zer baina, nola komunika-tzen den omen da gakoa. Gizakion garu-na horretara moldatu da.

Hau horrela ematen den garaiotan, agian ez gara modernoak izango, baina ezta inozoak ere. Politikarako, tertulia pausatuak eta sakoneko eztabaida lasaiak lehenetsi nahiko genituzke zelofan kolo-retsuen artetik. •

Isidroren irribarrearen indarra

Miren Azkarate
Badiola

Berri txarrak eta pozgarriak jasotzen ditugu maiz, bizitzaren legea da, heriotzak eta jaiotzak bezala. Gaurkoan lehen horietako bat ekarri nahi dut hona, berri triste bat. Heriotza bat bada ere aipatu-ko dudana, ezin dut irri txikia ahotik kendu, horrela oroitzen baitut beti Isidro Murga. Beti, beti irribarrea ahoan.

Bere heriotzak sorpresaz hartu nau. Egia esan, aspaldian ez nuen bere berri zuzenik, baina estimu handian nuen pertsona zen. Leongo espetxean ezagutu nuen: bera, bere anaia Patxo eta Josu Uribetxeberria ondoko moduluan bai-

nituen. Ez genuen aukera handirik elkarrekin hitz egiteko; noizean behin haien patioa eta geurea banatzen zituen murraren alde banatara izaten genituen solasaldiak (motzak, txakur-ek ez baitzituzten gogoko) edota gu bisitetara ateratzen gineneko momen-tua baliatzen genuen elkarri hitzak airen bidaltzeko. Minutu horretantxe edo akaso asko jota bost minutu horietan izaten genuen elkar aurpegia ikus-teko aukera. Hirukoa haien jantokiko aulkietara igotzen zen eta leihoetako barroteetan burua sartuta itxaroten ziguten Isidrok, Patxok eta Josuk gu

agurtzeko eta hitz batzuk gurutzatzeko prest. Hiru adineko gizon hiru neska gazteri egun on, animo hitzak eta hitz goxoak esaten (aparteko irudia dudarik gabe). Eta hantxe Isidroren irribarrea beti guretzako opari. Pilak kargatzeko ez nuen besterik behar.

Gaur egun momentu hura gogoratze-ak grazia egiten dit, baina, era berean, asko hunkitzen nau. Eta, nola ez, indarra ematen dit; «egin irri, irabaztera goaz eta» esaldiaren irudi grafikoa zen Isidro. Bere irribarreak eta bizitza guz-tian egindako lanak, garaipena besterik ez dute merezi. •